

Azterketen gaitzaldia

Urtero legez, urtaril bukaerarako azterketei heltzen diete unibertsitarioek; dagoeneko, hilabete daramate horiek prestatzen

Iban Ocio • Leioa

Ondoezik. Urduri. Odola borbor. Ekinagatik, kezkati, eta heltzear dagoenaren beldur. Asmoz eta jakitez gertu; irudipenez eta susmoz makal. Edo atsekabeturik. Sentsaziook, askorenak. Nahikoa ikasi baina liburu artean irakaspenik ahanzi dutenenak. Asteotan estresak jota ibili ohi diren unibertsitarioenak. Azterketen mamua lagunon amesgaizto. Baina patxadatsu dabilzanik badago. Kezkarik nemiñoena ere bazter utzi eta apunteei arreta hutsala egin diotenak, alegia. Azterketak arrotz zaizkienak. Eta badira luzaz ukondoak mahai gainean jarritik egon direnak. Ikastun zintzoenak. Borondate sendonekoak. Ikasgelara gaudituko duten ziurtasun osoz joaten diren horietakoak. Bada, Leioako campusak orotariko ikasleak batzen ditu. Egunotan antzeman daitezke batzuen eta bes-teen arteko aldeak.

Liburutegiko saltsa

«Bilboko liburutegietara joanez gero, jarleku barik gera zintezke, erraz gainera. Gurago dut Leioa arteko txangoa egin. Eskolako topaguneotan guztiontzako adina mahai daude ikas-teko». Biologia ikasle Asier mintzo da. Barrez esan du bera liburutegira ikastera biltzen dena, baina denbora pasa joaten denik badagoela; ondoko lagunak, noski. «Isilik beharko genuke. Etxean ezin lor dezakegun baretasun bila gatoz hona. Aitzitik, ikaskideekin hitz egiteak ere nahikoa lasaitzen du. Zailak argitzeko ere baliagarri dira hizketaldiak». Liburutegia, azkenik, marmar eta xuxurlen biltoki. Liburutegia ere azterketen gatz eta piperra.

Atsedeen apurra

Noizean behin kafetegira osteratxo bat egiten dute ikasleek. Kazetaritza ikasle Jon Anderrek, Vanesak eta Laurak, esaterako. Lagunok Informazio enpresari buruzko azterketa egingo dute aurki. Ikasgelara joan aurretik, baina, kafeari zurrupadaka ari zaizkio —zigarro zupada artean—. «Jarduera lasaigarria da, askok ezetz uste badute

ere. Urduriak kanporatu eta azterketa ahanzteko unerik gozoenak dira hauexek. Lagunarteko giroa mesede da ondorengo buruko lana txukunagoa egiteko», azaldu dute. Geroago joango dira ikasgelara.

Azterketa garaia

Azterketa egingo den ikasgelaren kokaguneari begiratu azkarra eman eta ziztu bizian abiatzen dira ikasleak hartara. Goiz heldzeak badauka abantailik. Irakasgaia gaudituzko txuleta baliatuko dutenei leku aukeraketa zorrotza egitea premiazkoa zaie. Alegia, irakaslea alaitzen jarri nahiko dute. «Askotan jarlekuaren arabera da nota ona edo txarra lortzea», esan du Amagoiak. Azterketen egutegia azaltzen den iragarki taula miatzen ari da Soziologia ikaslea. Adi-adi.


Heldu da irakaslea. Ikus-entzunezko komunikazioa langai duten ikasleak gertu daude. Irakasleak banatu ditu azterketa orriak. Eta hasi dira ikasgaia zertzen. Azterketa bitxi samarra da, batere ohikoa ez baita apunteak mahai gainean edukitzea. «Nahiago ikasleak burmuinari jira-bueltaka aritzea dena buruz ikastea baino», argudiatu du Patxik, irakasleak. Ikasleak badute azterketa zertan oinarriturik. Gaitz erdi.

Liburutegian. Guneok dira azterketen gatz eta piperra. Azterketak heldu eta jendez lepo ageri dira liburutegiak. Horietan aritzen dira ikasleak: marmarka, txutxumutxuka... eta ikasten.

Kafetegian. Lantzean behin aisialdi guneetara abiatzen dira ikasleak, azterketen ondoreza apaldu guran. Zigarroen keak eta kafearen usainek hartzen dituzte eskolako kafetegiak.

Iragarki taula. Merezki du azterketaren ordua eta lekua zein diren egiaztatzea. Ikasleek begiratu azkarra egiten diete tauloi gelara abiatu aurretik. Ondotik, ziztu bizian joaten dira hartara.

Azterketa. Ikasgelan daudela oso ezberdinak dira unibertsitarioen jarrerak: batzuek lasai-lasai ekiten diote azterketari; besteek, aldiz, nahikoa lan dute orrialdeak betetzeko irakaspenak gomutatzen.



ARGAZKIA: LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

